

## 2. Erreminta.

### **ELKARBIZITZA BEHATOKIAREN FUNTZIOAK.**

a) Ondoko zerrendan jasotako jardueretatik, zein dira zure ustez garrantzitsuenak? Zergatik?

1.	Elkarbizitza Plana egin eta martxan jarri behar da; ondoren, planaren jarraipena eta ebaluazioa ere egin behar da.
2.	Estamentu guztiek zuzenean hartu behar dute parte, batez ere, ikasleek.
3.	Estamentu guztiengan bultzatu behar da pertenezia-sentimendua, bereziki ikasleengan.
4.	Aukera- eta tratu-berdintasuna zaindu behar da prozesu- eta harreman-arlo guztietan.
5.	Hezkuntza Komunitate osoari harreman positiboak sustatzeko jarduerak proposatu behar zaizkio: topaketak, jaialdiak, desioak eta sentimenduak adierazteko kartelak, antzerki-taldeak, gorputz-adierazpenerako tailerrak, erlaxazioa, hainbat gairi buruzko eztabaidak, gatazkak konpontzeko eta komunikazio-gaitasunak lantzeko estrategiak...
6.	Guztion artean elkar zaintzeko kultura garatzen lagundu behar dugu; norberaren burua eta gainerakoena zaintzea aberastasun- eta poztasun-iturri baita denontzat.
7.	Ikastetxearen elkarbizitza-arauak aztertu behar dira (agerikoa: AIA... eta ezkutukoa: idatzita ez dagoena); araudiaren diagnostikoa egin eta hobetzeko neurriak ere inplementatu behar dira.
8.	Harremanak hobetzeko bidean, proposamenak, egonezinak eta iradokizunak jaso nahi ditugu estamentu guztiengandik, era horretara, gatazkak konpontzen eta elkarbizitza osasuntsua eratzen ikasteko.
9.	Eguneroko martxan sortzen diren beharrak eta gatazkak kudeatu eta bideratzeko ekintza-protokoloak proposatu nahi ditugu.
10.	Berdinen arteko balizko tratu txarrak edota indarkeriazko kasuak detektatu nahi ditugu (triptikoak dibulgatu, galdeketak, soziogramak, testak...) eta adostutako neurriak lehenbailehen martxan jartzen direla bermatu.
11.	Informazioa jaso nahi dugu, beste arlo batzuetan elkarbizitza nola garatzen den jakiteko, eta inguruko baliabideak eta ekimenak zein diren ezagutzeko.
12.	Lankidetzak sustatu nahi dugu inguruko beste erakunde, organizazio eta entitate batzuekin, elkarbizitza positiboa eta kooperazio-kultura sustatzeko.
13.	Behatokiak egin behar duen lana plan batean jaso behar da, eta, ondoren, horren ebaluazioa eta urteko memoria egin behar dira.

*Urteko Elkarbizitza Plana (UEP) eratzeko gida*

1. ....  
.....  
.....

2. ....  
.....  
.....

b) Taldean eztabaidatu, bakoitzak bere argudioak eta arrazoiak emanda. Bat datozen iritziak bildu, eta, ideia baten garrantzia azpimarratzeko argudioak entzun ondoren, adosturiko akordioak ere jaso.

**HONETAN GATUZ BAT:**

c) Taldean, galdera hauei erantzun:

**c.1) ASMO HORIEK LEHENTASUNA DUTE UNE HONETAN?**

**c.2) ASMO HORIEK AURRERA ERAMATEKO KONPROMISOA HARTUKO DUGU? BADUGU HORRETARAKO GAITASUNIK?**